



PLAN DE RECURSOS DIGITALES PARA ABOGACÍA



Software



Hardware



Capacitación TIC

Solicítalos!

COVID-19AREN PANDEMIK ERAGINDAKO ABOKATUTZARAKO BALIABIDE DIGITALEN PLAN BEREZIRAKO OINARRIAK

Lankide agurgarria:

Deialdi honen xedea da, alde batetik, baliabide digitalak eta hardware eta software erosteko laguntzak ematea COVID-19aren pandemiak eta Gobernuak 2020ko martxoaren 14an ezarritako alarma-egoerak kaltetu dituen abokatuei, eta bestetik, diru-sarrerak txikiagotzeagatik arautegia garatzea.

Baliabideen xedea abokatuentzako jarduera ez-juridikoaren bi arlotan egituratzen da, eta horrez gain, besteak beste alderdi hauetan hobetzeko oinarritzotzat jotzen diren baliabideen bost lerrotan banatzen da: denboraren kudeaketa eta bulegoetako baliabideak; zerbitzuen hedapena eta bezeroak erakartzea. Arlo bakoitzeko adituek baliabideak nola erabiltzen diren erakutsiko dute, saio espezializatuen bidez, talde murriztuetan. Nahitaez bertaratu beharko da.

Oro har, baliabide horien onuradun izan daitezke 2019ko ekitaldiko errenta-aitorpenean 45.000 euroko sarrera gordinak gainditu ez dituzten abokatuak. Halaber, ezinbestekoa izango da ezintasun profesionaleko egoeran ez egotea, eta epidemiaren ondorioz, ahalmen ekonomikoa txikiagotuta izatea.

Bere kontura aritzen den abokatuaren ahalmen ekonomikoa txikiagotu dela hartuko da, 2020ko lehen seihileko sarrerak, gutxienez, % 30 murriztu badira 2019ko lehen seihilekoaren sarreraren aldean.

Besteren kontura edo kolektibo batean aritzen den elkargokidearen ahalmen ekonomikoa txikiagotu dela hartuko da, 2020ko lehen seihilekoan, sarrerak gutxienez % 30 murriztu badira, 2019ko bigarren seihilekoaren sarreraren aldean, enplegatzaileak COVID-19aren ondorioz, enplegua erregulatzeko neurriak hartu dituelako.

Laguntza eskatu ahalko da CGAren web-orrian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, **2021eko martxoaren 12era arte**.

Eskabidea, inprimaki edo eredu normalizatuaren bidez egin beharko da. Hori, <https://www.abogacia.es> web-orrian argitaratutako estekan eskura daiteke. <https://www.abogacia.es>